

PE3

IRLA HAN DA I.(Irteera)

Kantauri itsas ertzean
Jaizkibel mendiaren babesean
ibai eta ibarrez betea,
partitzera noa
azken besarkada
pena bihotzean.

Irlandara nahi dut iritsi
atzemateko legatza,
behar dugu arrantza
lana da latza
emaitza ez aberatsa
egon gaitezen bixi-bixi.

Uda amaitzen doa
iraileko egun eder honetan
ontzikoak irriparrez
dabiltz ara ta honara,
entzun,entzun marinela!
goazen oro itsasora.

Kaietik irtetzen gara
atzera begiratu gabe
proa iparrean
arima atsekabea
ama eta arrebak negarrez
kaiean agurka zoro antzean.